



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ARRAGUA

ZENBAGARREN SAIOA: 1

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-01	19.30	21:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Jon del Olmo, Domi Azpiroz			
Herritarrak:	Euskaraz: 23		Elebitan: 9	
	Emakumezkoak: 15		Gizonezkoak: 18	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 1	51-65 urte: 20	>66 urte: 10

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Urkabe Baitaren inguruan galdetzen dute. Proiektua lantzen ari garela erantzuten zaio. Jaurlaritzarekin harremanetan gaude etxebizitzaren inguruko proiektua garatzeko. Hastapenetan dagoen proiektua dagoela erantzun zaio. Balorazio fasean dago. Arraguako eskolen inguruan galdetu dugu. Arraguatik Elizalderako espaloian Mendinen barrena belarra moztu behar da.
Aurrekontuak 2019	Ez dago galderarik.
Auzoa	Auzotar batek igogailuaren arazoaren historikoa egin du. Arazoa ongi aztertzeko eskatu du. Aukerarik azkar eta eraginkorrena hau dela erantzun zaio. Euskotreni erreklamazioak eginda ez da ezer lortuko. Gauzak pentsatzen den moduan baldin badoaz, legegintzaldi honetan egingo dela pentsatzen dela erantzuten da. Proiektuan zerbait berezia ateratzen bada, berriz ere auzoan bilera deituko da. Legegintzaldi honetan egiteko konpromezua hartzen da.

Ganboxan parkea egiteko eskaera egin dute. Auzotarrek proposamen bat egiteko erantzun zaio. Egiteko lanen zerrendan dago, baina proposamena behar da.

Aldegunaren gainean dagoen “parkea” biziberritzeko eskaera egin dute.

San Juan sua ospatzeko lekurik gabe geratu dira. Hurrengo San Juanetarako irtenbidea bilatu beharko litzateke. Kokapenaren inguruan proposamenak auzotarrek egin ditzaketela azaldu da, baina arauak jarri beharra dago eta arduradunak bilatu. Hondakinak ez erretzeko ahalegina egin da.

Beste auzotar batek dio arauak ongi iruditzen zaizkiola. Baina arau horiek errespetatzen direla ziurtatzeko norbait bidaltzea falta zela dio. Jarraipena egiteko zailtasuna dagoela erantzun zaio.

Korreosekin arazoak aipatzen ditu. Larrezabaleta eta tiro kanpoaren inguruan eskutitzak aurkitu dituzte. Oso berandu iristen dira. Ez da lehenengo aldia.

Larrezabaleta eta tiro kanpoaren arteko bidean zaborra botatzen dute. Batzutan obretako zakarrak botatzen dituzte, besteak beste Auztegi zaharreko ondoan.

Altzariak jasotzeko sistemaren inguruan kexa bat egon da. Sofa aldatzeko beharra eduki zuen eta hamabost egunean ez ziotela zaharra jaso aipatzen du. Erantzun da hilean bi aldiz jasotzen direla.

Trafikoaren abiadura ez da errespetatzen..

Larrezabaletan argiteria aldatu da leku batzuetan bakarrik, baina besteetan oso txarra da.

Arizabalotik Larrezabaletarako pista egoera txarrean dago, batez ere bazterrak.

	Ganboxako obran inguruan. Elkarteko kurban baranda jartzeko eskatu dute. Hondakinak. Arkaleko dorreko izkina zikina dago beti. Astero deitzen du poltsak jasotzera etortzeko. Katuak ere hurbiltzen dira. Arragua atzean Lintzirin aldera ere hondakinak botatzen dituzte eta oso zikina dago. Jendeak katuei ere janaria botatzen diela esaten du. Miauka elkartearekin ere arazoak izan ditu katuak eramaten zituztelako. Larrezabaletara igotzeko espaloia oso irristakor dago. Garbitzea komeni litzateke. Auzoan komun publikoak falta dira.
--	---

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,90
bilera ongi gidatu da	8,70
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,74
Auzotar kopurua	6,81
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,90
Saioa probetxugarria izan al da?	8,84
Egunaren egokitasuna	8,50
Orduaren egokitasuna	8,60
Lekuaren egokitasuna	8,89
Batezbestekoa	8,43